# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 3860

*1365/2020 EBAZPENA, irailaren 7koa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan San Inazioko Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe utzi den.*

1135/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan, San Inazioko Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Deialdiaren 5. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, epearen barruan hautagairik aurkeztu ez denez, bete gabe utzi behar da.

Beraz, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea 1135/2020 Ebazpenaren bidez egindako deialdia, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko San Inazioko Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostua betetzeko izendapen askearen bidez.

Bigarrena.– Ebazpen hau intranetean eta Osakidetzaren webgune korporatiboan argitaratzeko erabakia hartzea. Halaber, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko irailaren 7a.

Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentea,
EDUARDO MARÍA MAIZ OLAZABALAGA.